

1. KASU PRAKTIKOA

10 puntu



1. FASEA-INFORMAZIOA

Denbora: 5 minutu

Puntuazioa: 1,5 puntu

Gaur larunbata da, eta 11:50 dira. Bizkaiko Foru Aldundiko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko zaintzako burua zara, eta Bizkaia Prest-en zaude (Dispatching).

Zaintzako langileen dotazio teoriko osoa dago, eta ibilgailu guztiak erabiltzeko moduan daude. Zaintzako sarjentu bi daude, Basaurin (SZ2) eta Artatzan (SZ3).

08:30ean, SOS-Deiaken komunikazio bat jaso duzu, muturreko tenperaturen ondoriozko fenomeno kaltegarri bati buruzkoa. «Abisu horia Bizkaiko probintzian, muturreko tenperatura altuak direla eta»

11:55ean, SOS-Deiaken abisu hau jaso duzu:

«Hiriko sutea, lokal publiko batean»

Sutea Barakaldoko Ikea altzari-dendaren barruan. Ke beltz ugari. Dendako langileak barruan dauden pertsonak ebakuatzeko ahaleginean. Premiazko laguntza behar dute.

Ertzaintza eta Osakidetza bidean.

1. FASEA - GALDERA

**Zer jarduketa egin behar duzu lehenengo?
(1,5 puntu)**


2. FASEA-INFORMAZIOA

Denbora: 25 minutu

Puntuazioa: 6,5 puntu

Uriosteko dotazioa eta Artatzako sarjentua (Sz3) lanean ari dira jada.

Artatzako dotazioarekin batera heldu zara intzidentea gertatu den lekura, eta egoera-puntua egin duzu SZ3 sarjentuarekin, zeinak egoera taktiko eguneratu hau (SITAC) prestatu baitizu.



SZ3 sarjentuarekin egin duzun egoera-puntu horretatik, informazio hau ere eskuratu duzu:

Sutea behe-solairuan gertatu da, eta baliteke solairuartera zabaltzea. Jada ez dago arriskurik beste lokal komertzial batzuetara zabaldu dadin.

Lokal komertzialak minus bat solairua (garajea), beheko solairua eta solairuartea ditu.

Sarrera nagusia 1. fatxadatik, beheko solairuan.

Garajerako sarrera 4. fatxadatik.

Beheko solairuaren larrialdiko irteera 3. fatxadatik.

Solairuarteke larrialdiko irteera 4. fatxadatik.

Ke ugari eta bero handia, eta ebakuatu beharreko pertsonak daude solairu bietan.

Enpresak beheko solairuan dituen bulego-eremuak ebakuatu dira.

2. FASEA - GALDERA

Berehalako erreakzioak egin eta gero, idatzi (ez egin SITACa) zure esku-hartze plana, eta azaldu zure arrazoibide taktikoa eta hasierako agindua.

(6,5 puntu)

3. FASEA - GALDERAK

Denbora: 10 minutu

Puntuazioa: 2 puntu

**Esku-hartzeari dagokionez, erantzun
galdera hauei:**

Galdera bakoitzaren balioa 0,5 puntu da

1-Ikeatik hurbil erreka bat igarotzen da, eta, zenbait tartetan, Barakaldoko udalerrri-mugak eta beste bi herrirenak banatzen ditu. **Zein dira herri bi horiek, eta zein da erreka izena?**

1. herria:

2. herria:

Erreka:

2-Ikusirik zer ezarrita dagoen SS 3 oinarrizko dokumentuan, eta kontuan harturik Ikea establezimendu komertziala dela eta salmenta-eremuak dituela beheko solairuan eta solairuartearen, non jendea egon ohi den, **zure ustez zein da eremu horien gehieneko okupazioa, jakinik beheko solairuak 860m² dituela, eta solairuarteak 620m²?**

Beheko solairuaren okupazioa:

Solairuartearen okupazioa:

3-Muturreko tenperatura altuei buruzko abisu horiari dagokionez, **zein da kostaldean abisu hori emateko definitutako atalasea?**

Atalasea:

4-. Esku-hartzean, une batean turboonpa bat erabili behar dute. Erabili behar duen suhiltzaileak ez daki ondo nola erabili. **Azaldu iezaiozu labur nola funtzionatzen duen turboonpa batek, ea korrante elektrikoa behar duen eta zer motatakoa, eta nola muntatu behar den.**

Azalpena:

